

Prestakuntza-zikloen matrikulazioa ezohiko aldian (uztailaren 23an eta 24an eta irailaren 2tik urriaren 17ra).

Ohiko matrikulazio-aldiaren hiru faseak amaitzean, ziklo eta eredu linguistikoren batean plazaren bat libre geratzen bada, aparteko epean egin ahal izango da matrikula, plazak bete arte.

Ezohiko aldian matrikulatu nahi duen orok ondorengo loturan agertzen den **inprimakia** bete beharko du

[Solicitud lista de espera ciclos formativos/Heziketa zikloetako itxaron zerrendaren eskaera](#)

Inprimakia bidaltzeko epea **uztailaren 22ko 14:00 etatik, uztailaren 23ko, 8:30era** izango da. Ordu horretan, datuak deskargatu eta zerrendak egingo dira. Hasiera batean, aipatutako epean formulario hori behar bezala bete eta bidali duten pertsoneri baino ez zaie deituko. 24 tik aurrera berriro irekiko da formularioa eskaera berriak hartzeko ez-ohiko aldia bukatu arte. Aldi honetan izena ematen duten pertsonak itxaron zerrendaren bukaeran jarriko dira.

Ezohiko aldian plaza eskatzeko ez da beharrezkoa izango aurrematrikula egin izana, baina lehentasuna emango zaie aurrematrikula egin eta, bertan, sartu nahi den zikloa eskatu duten pertsoneri, eta, horien artean, onarpen-zerrendetan agertzen den batez besteko nota erabiliko da. Hiru zerrenda egingo dira, sartzeko hiru bideetarako bana. Hauexek dira sartzeko bideak:

Erdi mailako zikloetan: 1. bidea: DBHko graduatua edo baliokidea; 2. bidea: Oinarrizko Lanbide Heziketa; 3. bidea: beste batzuk, hala nola, erdi-edo goi-mailako zikloetarako sarrera-proba, beste titulu batzuk, hala nola, teknikari laguntzailea, batxilergo zaharra, IEE, 25 urtetik gorakoek unibertsitatera sartzeko probak, etab.

Goi-mailako zikloetan: 1. Bidea: LOE edo LOGSE batxiler-titulua; 2. Bidea: Lanbide Heziketako erdi-mailako teknikari-titulua; 3. Bidea: beste batzuk, formakuntza zikloetarako sarrera-proba, edozein batxilergo zaharreko bigarren maila, IEE, LHko beste goi mailako teknikari-titulu bat, unibertsitate-titulu bat, etab.

Onarpen-bideak eta lehentasunak hemen kontsultatu beharko lirateke: <https://www.euskadi.eus/informacion/proceso-de-adjudicacion-de-plazas-en-ciclos-formativos-de-fp/web01-a2hlanhz/es/>

Hezkuntza Sailak egindako zerrendetan agertzen den batez besteko notaren arabera deituko da, bide bakoitzeko lehentasun-ordena kontuan hartu gabe. Zerrenda bateko edo besteko pertsoneri deitzeko orduan, sartzeko bide bakoitzerako erreserbatutako ehunekoak errespetatuko dira.

Aurrematrikula egin ez dutenek eta ezohiko aldian parte hartu nahi dutenek sartzeko baldintzak bete beharko dituzte, eta, beraz, deituz gero, egin nahi duten graduko heziketa-zikloetan sartzeko aukera emango dien titulazio edo ziurtagiriren bat aurkezteko prest egon beharko dute. Formularioan titulazio edo ziurtagiri hori zein den adierazi beharko da, hiru zerrendetako batean sartu ahal izateko. Pertsona horiek aurrematrikula egin duen azken

pertsonaren atzean jarriko dira dagokien zerrendan, formularioa bidaltzeko ordenaren arabera.

Uztaileko ezohiko matrikulazio-egunetan (hilaren 23an eta 24an), dagokion inprimakia bete dutenei deituko zaie idazkaritzan hitzordua hartzeko. Hori dela eta, interesatutako pertsonak harremanetarako telefono bat edo gehiago adierazi beharko dituzte, egun horietan aurkitzeko moduan egon daitezten. Hiru saiakera egin ondoren ezin izan bada harremanetan jarri, hurrengo hautagaiarekin saiatuko gara.

Beste heziketa-zikloren batean matrikulatuta dagoen pertsonaren batek Barandiaranen ematen ditugun zikloetako batean matrikulatu nahi badu, plaza librerik geratzen bada, matrikula egin ahal izango du, beti matrikulatuta dagoen ikastetxean baja eman ondoren.